



PLAZAOLA TURISMO PATZUERGOAK MENDIALDEArako EREDU TURISTIKOA ETA MARKO ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO PARTE-HARTZE SAIOAK BULTZATUKO DITU.

Proposamenak egin eta partekatzeko saio eta gune irekiak antolatu dira, turismo eredua definitu eta programa gakoak diseinatzeko

Turismoaren sektoreak izugarriko aldaketak izan ditu azken urtetan. Turista eta bisitarien presentzia handitzearekin batera, gure lurraldeko eskaintza gero eta handiagoa eta anitzagoa da: alojamenduak, baliabideak, zerbitzu turistikoak, ekipamenduak, azpiegiturak, etab., Ondorioz, turismoa, ekonomiaren ardatz garrantzitsu bat bihurtu da Mendialdean.

Baina, batez ere, aldaketak oso nabariak izan dira eskaera turistikoan eta eskaera horri aurre egiteko moduetan (kudeaketan, merkataritzan eta promozioan). Gutxi balitz, COVID pandemiak areagotu egin ditu aldaketa horiek, eta beste behar eta eskaerak agerian utzi ditu: digitalizazioa, negozio eredu berriak, marketing tresna berriak, baliabide berrien eskaerak, publiko anitzagoak etab. Bestalde, ezin dira ahaztu pandemia garaian sortu diren egoera kezkarriak, besteak beste, gure inguruko negozio gehienek aurre egin behar izan dioten egoera zaila, sektorearen ahultasuna azalduz; eta, bestetik, baliabide turistikoaren kontsumoan sortu diren egoerak: bisitarien pilaketak, ingurune naturalarekiko eta landa-ingurunearekiko errespetu falta, zaborrak, bertako biztanleei eragozpenak, etab.

Honek guztiak zalantzan jarri ditu egungo turismo-eredua eta haren jasangarritasuna. Eta honek guztiak ere bultzatu du Partzuergoa inizatiba hau egitera.

Eredu turistikoa eta marko estrategikoa

Plazaola Partzuergoak **argi du zonaldeko turismoak kalitatezko proiektuak behar dituela oinarrian ohiko turismotik bereizteko, gaur egungo beharretara egokitzeko eta estrategia berriak sustatzeko**. Horretarako, bere proiektuak gauzatzeko nahitaezkoa du zonaldeko herritar eta eragileen iritzia eta ustea jasotzea, enpresari elkarte eta udalen bitartez jasotzen dutena, eta Partzuergoaren baitako taldeak inplikatzeari.

Etorkizunari begirako Plan Estrategikoa zehazteko bidea abiatu du Plazaolako Turismo Partzuergoak. Turismoa zonaldearen garapen ekonomikorako motor moduan lantzeko, zonaldeak berak dituen bereizgarriak balioan jartzeko eta zonaldearen kohesiorako ikuspegiarekin garatzeko helburu nagusiarekin.

Inizatiba honek **partaidetzan du oinarri nagusia**. Parte-hartze prozesu hau, turismoaren izaera transbertsalarekin bat eginez, lurraldeko hainbat eragileri irekita dago eta, era berean, herritarrekin eta gure zonaldeko turismoari lotutako kanpoko eragileekin partekatu nahi da.

Hauek dira proiektu honen helburu nagusiak:

- Mendialdeako lurralderako **EREDU TURISTIKOA** definitzea
- Datozen urtetarako **ESTRATEGIA TURISTIKOA** eta **LAN-ILDO NAGUSIAK** finkatzea



Hiru saio presentzial

Horrela, datozen asteetarako hiru parte-hartze saio antolatu dira eskualdeko eragileak elkartu, ekarpenak partekatu eta Plan Estrategikoaren diseinua modu kolaboratiboan egiteko.

Lehen parte-hartze saioa datorren irailaren 28an, asteartea, 15:30ean egingo da, hasieran, Larraungo udaletxean. Bigarren saioa urria amaieran izango da Basaburuan eta hirugarren, eta azken saioa, azaroa amaieran izango da, Leitzako Herri Aretoan.

Saioetan parte hartu nahi dutenek, **plazaola@plazaola.org helbidean izena eman beharko dute**. COVID egoera dela eta, saioetarako aforo mugak egongo dira eta saioetan parte hartzeko aurrez izena ematea eskatuko da. Higiene eta segurtasun neurriak bermatuko dira.

Parte hartze saio horietaz gain, aurrerantzean **on line parte hartzeko aukera** izango da. Horretarako galdetegi bat egongo da **www.plazaola.org** web orrialdean.

Proiektu hau, Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritzak deitutako dirulaguntzen onuraduna izan da.

Lekunberri 2021-IX-23